

AuzoEkin.

4. eremuko tailer irekia.

Bidebieta, Iparragirre, Izaskun.

Tolosako Udala.

1.

Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: uztailak 8.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Inmakulada Lanbide Ikastola.

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.
- o Osoigo enpresako ordezkariak, Xabi eta Hegoa.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 20 bizilagun, 9 emakume eta 11 gizon.

2.

Aurkezpenaren gakoak

Ongietorria eta saioaren kokapena

Garikoitz Lekuona Izetak (Komunitatea eta Gobernantzako zerbitzuburuak) ongietorria egin die bertaratutakoei, eta laburki azaldu du AuzoEkin prozesuaren barruan gaurko bilera non kokatzen den. Horrez gain, tailerraren helburu orokorrak aurkeztu ditu:

- Orain arte jasotako datuak eta informazioa interpretatzea.
- Hausnartzea, sailkatzea eta indargune eta ahulguneak definitzea.
- Erronken lehenespena egitea, eta ondorioak ateratzea.

3.

Saioaren azalpena

1. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

Egoera eta beharrak aztertu dira eremuz eremu, modu integralean: ingurumena eta paisaia, historia eta kultura, mugikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, biztanleria eta bizikidetza, ekipamendu eta zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa...

Saiorako, partaideak talde txikitan banatu ditugu, eta daturik adierazgarrienak azaldu, eta horien inguruan hausnartu dugu.

2. DINAMIKA

Saioaren zati honetan erronken inguruko dinamika bat egin dugu: erronkei buruz hausnartu, eta indarguneak zein ahulguneak definitu ditugu.

Diagnostikotik ateratako erronkak 6 bloketan banatu ditugu, eta horien inguruan eztabaidatu. Hauek dira sei blokeak:

1. Ingurumena, paisaia, historia eta kultura
2. Mugikortasuna, azpiegiturak eta energia
3. Hirigintza eta etxebizitza
4. Biztanleria, partaidetza eta bizikidetza
5. Ekipamenduak eta zerbitzuak
6. Ekonomia eta kontsumoa

3. ERRONKEN LEHENESPENA

Behin erronkak sei bloketan banatuta, eta taldean eztabaidatu ondoren, erronka horiek lehenesteko ariketa egin dute bakarka. Auzotar bakoitzari 6 gomets eman zaizkio: 4 berde eta 2 gorri. Gomets berdeak garrantzizko erronketan itsatsi, eta gorriak garrantzirik gabekoetan itsatsi behar izan dituzte.

Auzotarrek auzoan komertziorik ez egotea nabarmendu dute. Auzoko kontsumoa bultzatzearen garrantzia azpimarratu dute, eta horretarako, udalaren laguntza ezinbestekotzat jo dute.

Bestalde, nagusitu diren ideiak irisgarritasunarena eta Zabalarreta parkearena izan dira. Lehenengo gaiari dagokionez, irisgarritasuna, espaloien erabilera eta oinezkoentzako espazioa berreskuratzeko premia aipatu dute. Zabalarreta parkeari dagokionez, arnas gune gisa ikusten den arren, egoera hobetu beharra azpimarratu dute (argiztapenak, zuhaitzak, etab.).

Amaitzeko, aipatu dute erreferentziazko gune komun bat behar dela elkarre eta jarduerak sustatzeko. Lokalen erabilera berrikusi, eta azpiegitura egokia sortzea proposatu dute.

Itxiera

Eskerrak eman, eta azken erronda egin da. Hurrengo hitzordua gogorarazi da: **deriba, auzoan zehar paseo bat eman, eta orain arte aipatutako erronka guztiak geolokalizatu. Uztailak 9, 18:00-20:00.**